



## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK ETA BAVIERAKO ESTATU LIBREAK ELKAR ULERTZEKO MEMORANDUMA**

EUSKADiko Autonomia Erkidegoak, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusi Maria Angeles ELORZA andreak ordezkaturata,

BAVIERAko Estatu Libreak, Europako Gaietarako eta Nazioarteko Harremanetarako ministro Melanie HUML andreak ordezkaturata,

Aurrerantzean "aldeak" deituko zaie,

### **KONTUAN HARTUTA**

#### **Bi aldeek**

Interesa dutela orain arteko harremanei eutsi eta harreman horiek sendotzeko, Partekatzen dituztela askatasunaren, demokraziaren, justiziaren eta elkartasunaren balioak, Asmoa dutela elkarrenganako konfiantzan oinarrituta, adiskidetasun eta lankidetzazko loturak indartzeko,

Uste dute orain arte hasitako lankidetzaren emaitzak, bi aldeek 1994an sinatutako baterako adierazpenean eta bi aldeek 2014an sinatutako elkar ulertzeko memorandumean (Memorandum of Understanding) oinarritutakoak, oso onak direla,

Interesa dutela lotura horiei eustea eta horiek areagotzeko, bi gizarteak eta haien potentzialak hobeto ezagutuz eta denboran zehar beren artean ekonomia-, gizarte- eta kultura-arloan ezarri diren harremanen bidez.

Interesa dutela Europako politikako gai garrantzitsuei buruzko informazioa eta esperientzia aldizka trukatzeko,

## **ADIERAZTEN DUTE**

Asmoa dutela alde bien arteko harremanetan sakondu eta interes komunekoen zenbait arlotan lankidetzan aritzeko.

### **Lehenik**

Hasteko, interes komunekoen alor hauetan bilduko da lankidetzak:

- Digitalizazioa, Adimen Artifiziala eta Industria 4.0
- Teknologia iraunkorrak, garbiak eta ingurumena errespetatzen dutenak
- Automobilien fabrikazioa, mugikortasuna eta hiri-azpiegitura
- Ingurumena babestea (klima-egokitzapenean eta ekonomia zirkularrean oinarrituta)
- Barne-segurtasuna eta polizia (delinkuentziaren aurkako borrokan eta prebentzioan, bai eta polizien prestakuntzan eta hobekuntzan ere)
- Kultura-lankidetzak

Bi aldeetako klusterren nazioartekotze handiagoa eta kluster-egitura horien alde biko sare indartsuago bat bereziki garrantzitsuak dira arlo ekonomiko eta teknologikoko lankidetzan.

Gainera, bi aldeek elkarrekin balioetsiko dute interes komunekoen beste zenbait eremuetara ere zabaltzea lankidetzak.

### **Bigarrenik**

Elkar Ulertzeko Memorandum honek ez die parte hartzaileei bestelako finantza konpromisorik ezartzen, alde bakoitzak, hala badagokio, idatziz eta berezita onar ditzakeenak ez badira.

Lankidetzak hau alde bakoitzaren aurrekontu baliabideen menpe egongo da.

Beharrezkoa balitz, berriazko proiektuetan oinarritutako lan taldeak sortuko lirateke.

Etengabeko harremanetan oinarrituko da lankidetzak. Beharrezkoa denean, berriazko proiektuetan oinarritutako lan taldeak sortuko dira. Proiektua aurkezten duen aldea arduratuko da proiektu horren antolaketaren zuzendaritza eta buruzagitzak.

Lankidetzak gauzatzeko ekimenen etengabeko jarraipena egingo da eta egoki diren neurri eta

programak abiaraziko dira horretarako.

### **Hirugarrenik**

Erakunde gaietarako eta Europar Batasunarekiko gaietarako mintzakide gisa, EUSKADIko Autonomia Erkidegoaren aldetik Eusko Jaurlaritzaren Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta BAVIERAko Estatu Librearen aldetik Bayerische Staatskanzlei-k burutuko dituzte Elkar Ulertzeko Memorandum honen koordinazio eta jarraipen zereginak.

### **Laugarrenik**

Lankidetzaren tresna hau elkarrekin adostuta baino ezin izango da aldatu, eta idatziz adierazi beharko da hori. Aldaketak jasotzen dituzten agiriak eranskin gisa gehituko zaizkio Elkar Ulertzeko Memorandum honi, eta bere zati izango dira.

Elkar Ulertzeko Memorandum honek 3 urteko indarraldia izango du izenpetzen denetik aurrera. Aldeek lankidetzaren emaitzak eztabaidatuko dituzte, bai eta balizko jarraipen bat ere, epea amaitu baino lehen.

Elkar Ulertzeko Memorandum hau alde biek adostuta amaitu ahal izango da, edota alde batek bukatu ahal izango du besteari jakinarazpen idatzia eginez gero; gutxienez hiru hilabete lehenago egin beharko du jakinarazpen hori. Kasu horretan, egiten ari diren edo hirugarrenekin konprometitzen diren jarduerak burutzea izango da aldeen helburua.


Munich hirian izenpetuta 2021/06/23an, bi aletan, gaztelaniaz, euskaraz eta alemanez, hiru testuek jatorrizkotasun bera izanik.

**EUSKO JAURLARITZAREN IZENEAN**



Kanpo Harremanetarako idazkari nagusia

**BAVIERAKO GOBERNUAREN IZENEAN**



Melanie HUML

Europako Gaietarako eta Nazioarteko  
Harremanetarako ministroa